



Programazio laburtua eta denboralizazioa

3 Arlo: Globalizatua	Asteko saioak	Maila:
<ul style="list-style-type: none">– Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala– Ingurunea ezagutzea– Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena	HH ko arloak 25 Ingelesa..... 4 Erljio / HA 1	HH 3.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- 1. Garapen afektibo-emozionala:** emozioak identifikatzen ikasten hasi eta baliabideak eman emozio hauek bideratzen hasi ahal izateko.
- 2. Norbere inizatiba eta autonomia garatzea:** beren eta besteen ahalmenak ezagutzea eta pixkanaka-pixkanaka norbere autonomia eta inizatiba garatzea.
- 3. Gaitasun soziala:** besteekin harremanatzea eta poliki-poliki bizikidetasun eta harreman sozialeko jokabideak bereganatzea.
- 4. Komunikazio gaitasuna:** komunikazio trebetasunak garatzea hizkuntza desberdinetan eta adierazteko modu desberdinetan (lengoai musikala, plastikoa, gorputz eta keinuen adierazpena ...)
- 5. Garapen psikomotorea:** trebetasun eta abilezi motoreen garapena.
- 6. Gaitasun logiko-matematikoa:** pentsamendu logikoaren garapena eta abilezia matematikoan trebatzea.
- 7. Ingurunearen ezagutza:** bere ingurune familiar, natural eta soziala behatu eta aktiboki aztertzea. Nafarroako kultur adierazpen batzuk ezagutzea.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Norbere buruari buruzko irudi positiboa osatzea.
- Autonomia eta auto-konfiantzako sentimendua bultzatzea
- Ingurunea aktiboki behatu eta aztertzea.
- Beste pertsonekin harremanetarako gaitasunean trebatuz joatea.
- Trebetasun matematikoak garatzea.
- Ahozko hizkuntza gero eta egokiago erabiltzea.
- Euskarazko mezuak ulertu, hizkuntzarekiko jarrera positiboa izatea eta mezu errazak ekoiztea.
- Ingeleseko kontzeptu batzuk ulertzea eta ekoiztea.
- Irakurri eta idazketaren erabilera sozialak eta bere funtzionaltasuna ulertzea.
- Ikus-entzunezkoen lengoia eta informaziorako eta komunikaziorako teknologia berriak ezagutu eta erabiltzen hastea.
- Haien adierazteko ahalmena aberastea teknika artistiko eta material ezberdinak erabiliz.



Programazio laburtua eta denboralizazioa

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa irailetik abendura	2. ebaluazioa urtarriletik-martxora	3. ebaluazioa apiriletik ekainera
<p>BERRIRO ESKOLARA Iraila</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gure eskola, eskolako lagunak <p>MUSEOA Urriaren 2tik 27ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nolakoak diren museoak - Artistak eta artelanak: - Margoak, eskulturak, gure artelanak. <p>GARRAIOAK Urriaren 30etik azaroaren 30ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garraio mota ezberdin - Munduko bola aztertu eta kontinenteen inguruko elkarrizketa - Non bizi garen kokatu <p>GABONAK Abenduaren 1etik 22ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Olentzero eta Mari Domingi 	<p>NEGUA Urtarrilaren 8tik 26ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eguraldia: hotza - Neguko gertakizunak <p>IHAUTERIAK Urtarrilaren 29 otsailaren 8ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Inauteriak <p>ANIMALIAK Otsailaren 19tik martxoaren 9ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Animalia mota ezberdin - Animalia bat aukeratu eta proiektu bat egin <p>URA Martxoaren 12tik 28ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nondik dator edaten dugun ura - Mendillorriko ur biltegia 	<p>ELIKADURA ETA GAIXOTASUNAK Apirilaren 9tik 27ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikadura eta osasuna - Jokabide egokiak eta desegokiak <p>KANPALDIA-ASTITZ Maiatzaren 2tik 18ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Astitz eta Burlata arteko alderaketa - Mendukilo kobazuloak <p>LANDAREAK : Maiatzaren 21etik 31ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Barazkiak, loreak - Herrian eta eskolan dauden landareei buruz hitz egin. - Hazia erein eta prozesua ikusi <p>UDA ETA OPORRAK Ekainaren 1tik- Ekainaren 19ra</p> <ul style="list-style-type: none"> - -Udan egiten duguna

*Hauexek izaten dira HH 3. mailan dauden gaiak, ateraldiak eta kultur ospakizunekin lotuta. Horretaz gain, umeei haien proiektu pertsonalak aurrera eramaten dituzte urtean zehar, bakoitzak momentuan duen jakinmina jarraituz. Guk haurren prozesu honetan laguntzen dugu.

Proiektu anitzak eta momentuz momentuzkoak direnez, ezin ditugu hemen jaso; memoriaz baizik.



Programazio laburtua eta denboralizazioa

INGELESA

Artigal metodoaren 4 ipuinen lanketa eta kanta desberdinen bitartez landuko da hizkuntza (stories, nursery rhymes and songs).

ikasleak ipuinen antzezpena ikusi/entzun ondoren, progresiboki kontaktetan ere parte hartuko dute.

Istoriok eta kanta beti keinuekin lagunduko ditugu. Modu honetan keinuak egitearekin bakarrik ikasleak esaldi konkretu batzuk adieraziko dituzte, azkenik beraiek bakarrik ipuin osoa kontatuz.

Istoriok bat ikusi eta entzun ondoren, hainbat jarduera burutzen dira, bertan agertzen diren hitz berriak, esamoldeak eta estructures berriak modu desberdinetan landuz. Besteak beste, kanta abestu eta dantzatu, metodoak ekartzen dituen hainbat fitxa burutu eta flash-Card-ekin hainbat ekintza eta jolas egiten dira.

- **1. hiruhilabetea:**

“Jenny” ipuinaren lanketa

“Jhonny” ipuinaren lanketa

Nursery Rhymes and Songs

Routines (Days of the week, Weather, Months of the year, Who is missing in the class...)

- **2. Hiruhilabetea:**

“Jhonny” ipuinaren lanketa

“The monster” ipuinaren lanketa

Nursery Rhymes and Songs

Routines (Days of the week, Weather, Months of the year, Who is missing in the class...)

- **3. Hiruhilabetea:**

“The monster” ipuinaren lanketa

“Cake” ipuinaren lanketa

Nursery Rhymes and Songs

Routines (Days of the week, Weather, Months of the year, Who is missing in the class...)

Lantzen diren edukiak, ikasleen inguru hurbila jorratzen dute batez ere: Familia, Jostailuak, Janaria, animaliak, landareak... Honetaz gain, beste eduki osagarriak landuko ditugu aldi berean:

- Nursery rhymes edo kanta tradizionalak (hizkuntzaren soinuak lantzen dituzte eta oinarritzko hainbat hitz eta esamolde: zenbakiak, oinarritzko aditzak, asteko egunak, eguraldia ...)
- Beste metodoetako edukiak, Dvd-en bidez, Cd-Rom en bidez.



Programazio laburtua eta denboralizazioa

HEZKUNTZA ARRETA		
Helburuak	Edukiak	Metodologia
<ul style="list-style-type: none"> - Ikaslearen garapen integrala sustatzea. - Norbere emozioak hobeto ezagutzea. - Besteen emozioak identifikatzea. - Norbere emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzen hastea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gure eta besteen emozioen ezagutza. - Automotibazioa. - Autoestimua. - Gatazken ebazpena. - Trebetasun sozialak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ipuinak eta abestiak. - Irakaslearen jarrera (eredua erabiliz). - Egunerokotasuneko gatazketan praktikatuz irakaslearen laguntzaz.

ERLIJIOA		
Helburuak	Edukiak	Metodologia
<p>1. Gaia: <i>Jainkoak zaindu egiten gaitu.</i></p> <p>2. Gaia: <i>Ebanjelioak.</i></p> <p>3. Gaia: <i>Jainkoak Jesús ematen digu opari.</i></p>	<p>4. Gaia: <i>Jesusek elkarren lagun izaten erakusten digu.</i></p> <p>5. Gaia: <i>Jesusek barkatzen erakusten digu.</i></p> <p>6. Gaia: <i>Jesusek maitatzen erakusten digu.</i></p>	<p>7. Gaia: <i>Jesus gurekin dago.</i></p> <p>8. Gaia: <i>Jesusen lagunak gara.</i></p> <p>9. Gaia: <i>Jesusen festa.</i></p>

EBALUAZIOA
<p>Behaketa izango da ebaluaketarako tresna, hau da, etengabeko behaketaren bidez jasoko dugu ikasturte osoan haurren garapena. Klasean egiten diren ekintza guztiak, jarrera, arreta, arauak errespetatzea, portaera, eguneroko lanak, aurrerapenak, etab. behatuko dira.</p> <p>Txokoen metodologiaren bitartez, arreta indibidualizatua bermatzen dugu.</p> <p>Umeen erritmo eta beharrei egokitzen gara.</p>